

9. KOSTUAK

Kostu finkoak gure aplikazioa eusteko beharrezkoak diren baliabideak ordaintzea izango dira: aplikazioaren eguneratzea adibidez. Aldiz, kostu aldakorak, irakasleei bideoak egiteko ordainduko zaien soldata. Irakasleekiko akordio bi eratarakoa izan daiteke, eta beraiekin adostuko da. Lehenengo metodoa, soldata finko bat edukitzea izango da, eta hilero hilero soldata hori jasoko dute.



Aldiz, bigarren erara, bideo bakoitzak eragiten dituen sarreren %30 berak eramango ditu. Beste hainbat kostu aldakor egon litezkela badakigu. Lehenago azaldutako bezala, gure taldea handitzea gustatuko litzaiguke, honek enpresaren kapazitatea handituko du arlo guztietan. Horregaitik kapital zati bat gordetzen saiatuko gara. Honek, arazoren bat dagoenean edo galerak daudenean bultzada bat ematen lagunduko digu.